Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko abenduaren 14a, asteazkena — 235 — Miércoles, a 14 de diciembre de 2022



## URNIETAKO UDALA

*20/2021 Legearen 6. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuaren oinarri espezifikoa, trikitixa irakasle posturako onartzea.*

Kulturnieta SAko Administrazio Kontseiluak, 2022ko azaroaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

*Lehenengoa.* Trikitixa lanpostu bat lehiaketa bidez betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarri espezifiko arautzaileak onartzea (eranskina).

*Bigarrena.* Goian aipatutako lanpostua betetzeko lehiaketa bidezko hautaketa-prozesua deitzea.

*Hirugarrena.* Deialdia argitaratzea, oinarri espezifiko arautzaileen testu osoarekin batera, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Urnietako Udalaren iragarki-oholean eta Udalaren webgunean.

*Laugarrena.* Deialdiaren laburpen bat argitaratzea *Estatuko Aldizkari Ofizialean*, eta iragarki horren data izango da eskabideak aurkezteko epea zenbatzeko erabiliko dena.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Urnieta, 2022ko abenduaren 2a.—Jorge Segurado Iriondo, Kulturnieta SAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

(7624)

*20/2021 legearen 6. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuaren oinarri espezifikoa, trikitixa irakasle posturako.*

*1. Deitutako postua.*

Deialdi honen xedea da Kulturnieta S.A.ko lanpostu huts bat txanda irekiko lehiaketa bidez betetzea.

— *Postu-kopurua:* 1.
*Lotutako lan-postua:* Trikitixa irakaslea.
*Departamentua:* Sustapena.
*Lanpostua kokatuta dagoen eremua:* Musika Eskola.
*Taldea:* C, azpitaldea C1.
*Hizkuntza eskakizuna:* 2.
*Derrigortasun data:* 2019/5/23.
*Destino osagarria:* 13.
*Osagarri berezia:* 19.260,04 €.
*Eskatzen den titulazioa:* Batxilergoa edo Teknikoa, edo baliokidea.
*Postuaren dedikazioa:* Lanaldi partziala. Lanaldia matrikulatutako ikasleen arabera zehaztuko da.
Informazio-ondorietarako, 2021-2022 ikasturteko jardunaldia % 91,67 izan da.
*Hornitzeko modua:* Lehiaketa, 20/2021eko Legeko 6. xedapen gehigarrian ezartzen denaren arabera.

## AYUNTAMIENTO DE URNIETA

*Aprobación de las bases específicas de la convocatoria excepcional de estabilización de empleo temporal de larga duración derivada de la disposición adicional 6.ª de la ley 20/2021, del puesto de trabajo de profesor/a de trikitixa.*

El Consejo de Administración de Kulturnieta SA en sesión celebrada el 29 de noviembre de 2022 acordó, entre otros, el siguiente acuerdo:

*Primero.* Aprobar las bases específicas reguladoras del proceso selectivo para la provisión, por concurso, de un puesto de Profesor/a de Trikitixa (anexo).

*Segundo.* Convocar el proceso de selección por concurso para la cobertura del puesto arriba referenciado.

*Tercero.* Publicar la convocatoria, juntamente con el texto íntegro de las bases específicas reguladoras, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Urnieta y la web municipal.

*Cuarto.* Publicar un extracto de la convocatoria en el *Boletín Oficial del Estado*, siendo la fecha de este anuncio la que servirá para el cómputo del plazo de presentación de instancias.

Lo que se publica para general conocimiento.

Urnieta, a 2 de diciembre de 2022.—El presidente del Consejo de Administración de Kulturnieta SA, Jorge Segurado Iriondo.

(7624)

*Bases específicas de la convocatoria excepcional de estabilización de empleo temporal de larga duración derivada de la disposición adicional 6.ª de la Ley 20/2021, del puesto de trabajo de profesor/a de trikitixa.*

*1. Puesto convocado.*

Es objeto de la presente convocatoria la cobertura mediante concurso, en turno libre, de un puesto vacante de Kulturnieta S.A.

— *Número de puestos:* 1.
*Puesto de trabajo asociado:* Profesor/a de Trikitixa.
*Departamento:* Promoción.
*Área donde se ubica el puesto:* Musika Eskola.
*Grupo de clasificación:* C, subgrupo C1.
*Perfil lingüístico:* 2.
*Fecha de preceptividad:* 23/5/2019.
*Complemento de destino:* 13.
*Complemento específico:* 19.260,04 €.
*Titulación exigida:* Bachiller o Técnico, o equivalente.

*Dedicación del puesto:* Jornada Parcial. La jornada se determinará en función de los alumnos/as matriculado/as.
A efectos informativos, la Jornada del curso 2021-2022 ha sido del 91,67 %.
*Forma de provisión:* Concurso, de acuerdo con lo establecido en disposición adicional 6.ª de la Ley 20/2021.

EK\CV GAO-I-2022-07624



Encuentra Músico — www.encuentramusico.es

*2. Parte hartzeko baldintzak.*

2.1. Postua lortu nahi duenak oinarri orokorretako 2. atalean ezarritako baldintza orokorrak bete beharko ditu.

2.2. Oinarri orokorretako 2.h) idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, Batxilergoa edo Teknikoa, edo baliokidea.

*3. Lanpostua adjudikatzeko berariazko baldintzak.*

3.1. Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, euskararen 2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar da (derrigortasun data 2019/5/23).

Betekizun horiek egiaztatu beharko dira oinarri orokorren 2. eta 8. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

*4. Hautaketa-prozesua.*

Hautaketa-sistema lehiaketa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehenengo zatia, lehiaketa: izangaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan ezarritako instantzia-kopurua baizik ez da baloratuko, puntuazioaren arabera ordenatuta.

4.1.2. Bigarren zatia, euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailea izango da, betiere, 2. hizkuntza-eskakizunari dagokion euskararen ezagutza zehaztea eta egiaztatzea.

Oinarri orokorretan ezarritako moduan 2. hizkuntza-eskakizuna dutela agiri bidez egiaztatu duten izangaiek ez dute euskara-proba egin beharko.

Euskara egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzari eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeari buruzko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera baliozkotuta dauden euskara-titulu edo -ziurtagiriak onartuko dira.

Eskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzeari eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteari buruzko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak xedatutakoaren babesean 2 hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek dagokien ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, RUTCEn baliozkotu diren salbuespenak baizik ez dira onartuko.

*5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa.*

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimenduen baremoari jarraikiz emandako puntuen baturaren araberakoa izango da. Baremoa I. eranskinean dago jasota.

5.2. Bigarren zatia Gai edo Ez Gai gisa kalifikatuko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

*6. Lehentasun-klausula aplikatzea.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikuluaren ondorioetarako, artikulu horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula aplikatuko ez da aplikatuko, ez baitaude azpiordezkatuta.

I. ERANSKINA.

MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

*2. Requisitos de participación.*

2.1. Quienes aspire al puesto debe cumplir los requisitos establecidos con carácter general en el apartado 2 de las bases generales.

2.2. En relación a lo dispuesto en el apartado 2.h) de las bases generales, se exige la titulación de Bachiller o Técnico, o equivalente.

*3. Requisitos específicos para la adjudicación del puesto.*

3.1. Es requisito de provisión el perfil lingüísticos 2 de euskera (fecha de preceptividad 23/5/2019).

Los requisitos citados deberán ser acreditados de conformidad con lo establecido en la base 2 y 8 de las bases generales.

*4. Proceso selectivo.*

El sistema de selección será el de concurso y constará de dos (2) partes:

4.1.1. Primera parte, el concurso: consistirá en la valoración de los méritos alegados y acreditados por las y los aspirantes en la instancia, por medio del sistema de autovaloración, y se efectuará asignando a cada uno de ellos los puntos que le correspondan con arreglo al Baremo de méritos. Solo se valorará el número de instancias ordenadas por puntuación que se haya dispuesto en las bases generales que rigen la convocatoria.

4.1.2. Segunda parte, prueba de euskera: de carácter obligatorio y eliminatorio consistirá en determinar y acreditar en todo caso, el conocimiento del euskera al referido al Perfil Lingüístico 2.

No deberán realizar la prueba de euskera las personas aspirantes que hayan acreditado documentalmente estar en posesión del Perfil Lingüístico 2, en la forma establecida en las bases generales.

Se admitirán los títulos o certificados de euskera que están convalidados de acuerdo al Decreto 297/2010 de 9 de noviembre, de convalidación de títulos y certificados acreditativos de euskera, y su equiparación con los niveles del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas.

Quienes pretendan acreditar el perfil lingüístico 2 al amparo de lo dispuesto en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera, deberán aportar la certificación académica correspondiente. A estos efectos, únicamente se reconocerán aquellas exenciones que se hayan validado en el RUTCE.

*5. Calificación del proceso selectivo.*

5.1. La calificación del concurso vendrá determinada por la suma de los puntos atribuidos con arreglo al Baremo de méritos que se incluye como anexo I.

5.2. La segunda parte se calificará de Apto o No Apto.

5.3. La calificación final de las y los aspirantes vendrá determinada por la suma de las puntuaciones obtenidas en el total del proceso selectivo.

*6. Aplicación de la cláusula de prioridad.*

A los efectos de la aplicación del artículo 27.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, no se aplicará cláusula de desempate prevista en el citado artículo al no existir subrepresentación.

ANEXO I

BAREMOS DE MÉRITOS

De conformidad con lo dispuesto en las Disposición Adicional Octava de la ley 20/2021 de 28 de diciembre:

EK\CV GAO-I-2022-07624



Encuentra Músico
www.encuentramusico.es

a) Esperientzia: 80 puntu gehienez.

a.1. Esperientzia orokorra:

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein Sektore publikoko entitatetan, baita Kulturnieta S.A.n ere, emandako zerbitzuengatiko esperientzia, dagokion hautaketa-prozesuaren xede diren lanpostuetan, edozein dela ere funtzionarioa edo lan-kontratuduna.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

— Trikitixa irakasle lanpostuan, sektore publikoko edozein erakundetan, egindako zerbitzuengatik: 0,01643836 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

a.2. Esperientzia espezifikoa:

Gehienez 20 puntu emango dira, berariaz, bereizita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri, dagokion hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik Kulturnieta S.A.n egindako zerbitzuengatik, baremo honen arabera:

— Kulturnieta SAko Trikitixa irakasle lanpostuan egindako zerbitzuengatik, 0,00547945 puntu lan egindako egun bakoitzeko.

Erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura eginez egingo da zenbaketa.

Puntuazio gorena lortzeko, zerbitzuak % 91,67ko jardunaldiarekin eman beharko dira (Trikitixa irakaslearen jardunaldia, 2021-2022 ikasturtea). Lanaldi osoko zerbitzua eman den denbora-tarteak edo beste lanaldi-ehuneko batzuk, benetan egindako lanaldiarekiko proportzionalki zenbatuko dira, lanaldia legezko zaintzagatik murrizten denean izan ezik, kasu horretan lanaldi osoan zebatuko baita.

b) Prestakuntza-ikastaroak. Gehienez 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei:

b.1. Deitutako postuan eskatutakoaz bestelako titulazioa edo gaikuntza izateagatik betiere deitutako lanpostuen funtzio-eremurako egokiak diren ikasketak badira: gehienez, 16 puntu.

— Deitutako postuari dagokion instrumentuaren espezialitateko gaikuntza: 12 puntu.

— Beste musika espezialitate titulu bakoitzeko: 3 puntu.

— Beste musika espezialitate gaikuntza bakoitzeko: 2 puntu.

b.2. Deitutako postuei lotutako lanpostuen funtzio-eremurekin lotutako prestakuntza-ikastaroak, jasotako ordu kopuruagatik, bai eta erakunde ofizialek emandakoak edo homologatutakoak ere (herri-adminiztrazioko eskolak edo institutuak, herri-administrazioak, unibertsitateak, lanbide-elkargoak, mutualitateak, fundazioak, elkarteak, federazioak), 0,02 puntu jasotze-ordu bakoitzeko: gehienez, 4 puntu.

a) Experiencia: hasta un máximo de 80 puntos.

a.1. Experiencia general:

Se entiende por experiencia general, la experiencia por los servicios prestados en cualquier entidad del Sector Público, incluida Kulturnieta S.A., en puestos que sean objeto del respectivo proceso selectivo, con independencia del carácter, funcionarial o laboral, de la relación de la que traiga causa.

Se valorará hasta un máximo de 60 puntos, de acuerdo al siguiente baremo:

— Por servicios prestados en el puesto de Profesor/a de trikitixa, en cualquier entidad del Sector Público, 0,01643836 puntos por día trabajado.

a.2. Experiencia específica:

Se valorarán, hasta un máximo de 20 puntos, de manera específica, diferenciada y complementaria a la valoración de la experiencia general, los servicios prestados en Kulturnieta S.A. por el desempeño de puestos convocados en el respectivo proceso selectivo, de acuerdo al siguiente baremo:

— Por servicios prestados en el puesto de Profesor/a de Trikitixa, en Kulturnieta S.A., 0,00547945 puntos por día trabajado.

El cómputo se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados en cada entidad.

Para obtener la máxima puntuación, será necesario haber prestado los servicios con una jornada del 91,67 % (jornada del profesor/a de Trikitixa del curso 2021-2022). Los periodos de tiempo en los que se haya prestado servicio a tiempo completo u otros porcentajes de jornada, se computarán proporcionalmente a la jornada efectivamente realizada, a excepción de los supuestos en que la reducción de jornada sea por guarda legal, en cuyo caso se computará a jornada completa.

b) Cursos formativos. Se valorarán hasta un máximo de 20 puntos los siguientes méritos:

b.1. Estudios adecuados al ámbito funcional de los puestos convocadas por titulación o habilitación distinta a la exigida en el puesto convocado: hasta 16 puntos.

— Habilitación especialidad instrumento correspondiente al puesto convocado: 12 puntos.

— Por cada otro título de especialidad musical: 3 puntos.

— Por cada otra especialidad musical habilitante: 2 puntos.

b.2. Cursos de formación relacionados con el ámbito funcional de los puestos convocadas, por el número de horas recibidas, así como los impartidos u homologados por organismos oficiales (escuelas o institutos de administración pública, administraciones públicas, universidades, colegios profesionales, mutualidades, fundaciones, asociaciones, federaciones), 0,02 puntos por hora de recepción hasta un máximo de 4 puntos.

EK\CV GAO-I-2022-07624



Encuentra Músico
www.encuentramusico.es